



OÑATIKO UDALA

Telefona: 943 78 04 11  
Fax: 943 78 30 69  
20560 OÑATI

# OÑATIKO ZUBIKOA KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK GARBITZEKO KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOAK

## 1. PLEGUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua Zubikoa Kiroldegiko (Oñati –Gipuzkoa) garbiketa integrala da (desinfekzioa barne).

Garbiketa-zerbitzua egingo da pleguetan eskatutako kalitatea lortzeko behar diren baliabideak jarriz, kostua optimizatzeko irizpideei jarraituz eta Zubikoa Kiroldegiak ematen dituen zerbitzuetan ahalik eta oztopo gutxien jartzea bermatuz.

Zerbitzuaren barruan honako hauek sartzen dira: behar diren kontsumigarriez eta materialez hornitzea, hondakinak kentzea eta entitateak eskatzen dituen aparteko beste garbiketa-lan batzuk.

## 2. ESPAZIOAK ETA ELEMENTUAK

Kontratu honen espazio-eremutzat hartuko dira Zubikoa Kiroldegiaren barruko gela eta gune guztiak (ikusitako gelak eta guneak II. ERANSKINEAN: "ZERBITZUAREN GUTXIENKO MAIZTASUNAK"), horien erabilera edozein dela ere. Barruko gela eta gunetzat hartuko dira eraikinaren eranskin guztiak, fisikoki eraikinetik kanpo badaude ere, kiroldegiaren esparruaren barruan badaude. Aurreko ataleko zehaztu gabeko adibidetzat honako hauek ditugu:

- Zoruak (kiroletakoak, kiroletakoak ez direnak eta naturalak)
- Sabaiak
- Hormak
- Altzariak
- Argi-puntuak
- Pertsianak / errezelak
- Metalak eta urreztatuak
- Konketak
- Komunontziak
- Pixatokiak
- Dutzak
- Igerileku-hondartza
- Igerileku-ontzia
- Saretak
- Erradiadoreak
- Eskudelak
- Metalezko egiturak
- Aire-garraiobideak
- Kanpoaldeak
- Leihateak
- Beirateak
- Beirategiak

Baita, atal honetan berariaz aipatu ez arren, gela eta gune horietako elementu lagungarriak edo altzariak ere.

Barne hartzen dira eraikinei erantsitako guneak, hala nola sarbideak, arrapalak, kanpoaldeko gune estaliak eta ibiltzeko estalkiak, baita zentroen kanpoaldeak, barrualdeko beheko edo goiko patioak, kanpoaldeko patioak, kirol-pistak eta abar.

Kontratuaren eragin-eremutik kanpo geratzen dira honako espazio hauek: jantokia, sukaldea eta kafetegiko biltegiak.

### **3. ZENTROEN EGOERA**

Esleipendunak, lizitazioan parte hartzeagatik, kontratuaren helburu diren zentroen egoera onartuko du, eta ez du inolako konpentsaziorik eskatzeko eskubiderik izango kontratuaren bidez hartutako betebeharrak zorrotz betetzeko egin beharreko gainahaleginagatik.

### **4. GARBIKETA LANAK**

Hona hemen, oro har, plegu honetan aintzat hartzen diren garbiketa-lanak:

- Gela eta gune guztietan xurgagailua edo erratza pasatzea, amaraunak kentzea, paperontzietan poltsak jartzea eta metatutako zaborra biltzeko lekuetan jartzea, ondoren eramateko.
- Honako hauek garbitzea: ispiluak, kristalak, eskudelak, heldulekuak, atearak, leihoak, arotzeria, mahaiak, aulkiak telefonoak, paperontziak, armairuak, fitxategiak, erakustaltzariak, paskinak, kartelak, barruko pintadak, su-itxalgailuak, arbelak, informazio- taulak, korridoreak, bulegoak, aldagelak, komunak, botikinak, monitore-gelak, kirol-pistak, igerileku-hondartzak, gimnasioak eta aldagela eta gela lagungarriak. Aldagelak, komunak, dutxak eta igerilekuak arreta handiz garbituko dira, alegia zoruak, alikatatuak, dutxako saretak eta hustubideak, konketak, xaboi-dosifikatzaileak, esku-lehorgailuak, paper-barrak, edukiontzi higienikoak, paperontziak, komunontziak, dutxa-buruak, txorrotak, eserlekuak, kakotegiak eta, oro har, barne hartzen dituzten altzari guztiak.
- Zentroaren barrualdeko eta kanpoaldeko hormetako pintadak eta grafitiak garbitzea, 2,5 metroraingo gutxi gorabehera, eta kartelak, paskinak, paperezko panfletoak, kartoi meheak eta antzekoak kentzea elementu guztietan.
- Paperontzietako zabor-poltsak egunero hustu eta berriak jarriko dira, eta hondakinak Zubikoa Kiroldegian horretarako berariaz ezarritako lekuetara eramango dira.
- Instalazioetako terrazan eta kanpoaldeko sarbideetan metatutako zaborrak egunero bilduko dira.
- Garbiketa-zerbitzuak berariaz hartzen du barne goizeko eta arratsaldeko txandetan eraikinetako komun eta gimnasio guztietan komuneko papera, xaboa eta eskuak lehortzeko papera dagoen

begiratzea eta jartzea, beti erabilgarri egon daitezen. Papera geruza bikoitzekoa izango da. Material horien hornidura esleipendunaren kontura joango da.

- Pertsianak, errezelak eta berokuntza-erradiadoreak garbitzea.
- Gela eta gune guztietako dutxako saretak eta hustubideak, zoruak, alikatatuak, dutxa-buruak, txorrotak eta komunontziak karez garbitzea eta eguneroko garbiketa.
- Gimnasioko makinak, materialak eta hormak, informazio-plakak, ebakuazio-plakak eta abarrekoak garbitzea (garbiketa ez-teknikoa).
- Larrialdietako lanparak, aireztatze-saretak, gasa eta lurruna xurgatzekoak, argi-tresnak, kirol-saskiak, kirol-ateak, barruko hustubide-saretak eta abarrekoak garbitzea.
- Markagailu finko eta mugikorak, kirol-saskiak, kirol-ateak, argi-tresnak, barruko eta kanpoko goiko beirateak, eta gune irisgaitzak garbitzea. Garbiketa horiek Zubikoa Kiroldegiak eskatzen duen bakoitzean egingo dira.
- Galdara-gelak, biltegiak, argindar-armairuen kanpoaldea, gimnasioko makinak, koltxonetak, biltegietan gordetako material mugikorak, markagailu finko eta gune irisgaitzak garbitzea.

Ohikoak ez diren garbiketa-lanak egiteko egun zehatzak Zubikoa Kiroldegiko arduradunekin adostu eta bete egingo ditu enpresa esleipendunak. Helburu horrekin, enpresa lizitatuak berariazko plangintza aurkeztuko du, egin beharreko zeregin guztiak, egunak eta orduak zehaztuta. Zubikoa Kiroldegiak plangintza hori aztertu eta, dagokion puntuazioaren arabera, onartu egingo du, eta gero, abian jartzen denean, gainbegiratu eta kontrolatu egingo du.

## 5. OHIKO ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA

Garbiketa-lanak prozedurarik egokienaren arabera (ikus I. ERANSKINA) eta eraikuntza-materialen izaerari eta garbitu beharreko azaleraren ezaugarriei dagozkien produktuekin (ikus 11. atala: "BALIABIDE MATERIALAK") beteko dira.

Zerbitzuaren antolakuntzak bat etorri behar du instalazioetako zerbitzuaren egutegiarekin eta ordutegiarekin, baita instalazioak erabiltzeko aurreikuspenaren arabera izan litezkeen aldaketekin ere. Edonola ere, instalazio guztiek garbi eta lehor egon behar dute zerbitzua zabaltzeko orduan. Garbiketa zerbitzua instalazioak jendearentzat itxita dauden orduetan beteko da, eguneroko mantentze-zerbitzua izan ezik. Hori arratsaldeko lehen orduan beteko da, jarraian zehaztuko den egutegiaren/ordutegiaren arabera.

EGUNAK	HILA	ORDUAK	ZERBITZUA
Asteleheneetik ostiralera	Irailetik uztaiera	13:30 – 17:00	Zikinkeria kentzea / garbiketa orokorra, aldagela, komun eta jarduerageletan arreta

			jarriz
Larunbata	Irailetik uztaiera	13:30-16:30	Aldagelak
Astelehenetik ostiralera	Uztaila	13:30-15:30	Aldagelak

Jarraian, enpresa esleipendunak bereganatu eta antolatu beharko dituen zerbitzu-beharrak zehaztuko dira:

## **5.1. Mantentzeko, kontserbatzeko eta txukuntzeko garbiketa plana**

### **5.1.1. Mantentzeko garbiketa-plana**

Gela eta guneeetako elementu bakoitza garbitzeko eragiketak eta maiztasunak, gutxienez, 2. eranskinean ("OHIKO GARBIKETA ZERBITZUAREN GUTXIENeko MAIZTASUNAK") ezarritakoak izango dira.

Garbitzeko espazio eta maiztasunen deskribapena orientagarritzat hartu behar da. Edonola ere, haietako batean izan litekeen akatsak ez ditu ezertan aldatuko esleipendunaren betebeharrak eta eskubideak.

Enpresa esleipendunak uneoro hartu beharko ditu antolakuntza-neurririk egokienak lantaldeen errendimendua optimizatzeko. Horretarako, ikerketa eta proposamen zehatza egingo du ibilbideak eta zonaren arabera lan-kargak erabakitzeko.

Kontratatistak bere proposamenean adierazitako makinak eta garbiketa-produktuak erabiliko ditu lan mota bakoitza betetzeko. Makina eta produktu horiek egokienak izango dira garbitu beharreko materialen ezaugarri, paramentuen testura, altzari eta osagarrien arabera. Plegu honen 11. kapituluan ("BALIABIDE MATERIALAK") zehaztuta daude.

Esleipendunak behar dituen makina, bitarteko lagungarri, tresna eta garbiketa-produktu guztiak eduki beharko ditu plegu honetan azaldutako lanak zuzen betetzeko. Haren kontura joango dira horiek guztiak erosi, bildu, konpondu eta birjartzea. Era berean, materialen bat matxuratu edo apurtzen bada, ordezkatu egin beharko du konponketak irauten duen bitartean.

Edonola ere, kontratatistak erabakitzen duen antolakuntzak honako irizpide hauek bete beharko ditu:

- Desinfekzioa behar duten guneeetan, garbiketa zorrotz egingo da eta desinfekzio-mailarik handiena bermatzen duten prozedurak eta sistemak erabiliko dira, instalazio publikoak, bereziki komunak, aldagelak, bainugelak, dutxak eta igerilekuak, erabiltzen dituzten pertsonen kopurua kontuan hartuta eta betiere 3. eranskinari ("IGERILEKU HONDARTZA ETA GAINERAKO ELEMENTUAK GARBITZEKO PROTOKOLOA") jarraituz.
- Bulego, gela, atondo eta gainerako gunen mantentze-garbiketarako egoera txukuna bermatuko du itxuraren eta kalitatearen aldetik, erabiltzaileek gunen horiek erabiltzeko moduan.

- Instalazioak ondo garbitzeko behar diren bitartekoak erabiliko dira beti: garbiketa-produktuz eta tresnaz hornitutako orgak, makinak, eskailerak eta abar. Era berean, beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, kontratako pertsonalaren segurtasuna eta zentroko erabiltzaile eta langile guztiena bermatzeko (zoru hezearen seinaleak, norbera babesteko ekipamenduak eta abar). Neurri horiek are zorrotzagoak izango dira eguneko garbiketa-zerbitzuan, horrek kiroldegiko erabiltzaileekin batera aritu behar baitu.
- Kontratako proposatutako zerbitzuaren kalitate- eta kontrol-plana uneoro betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Kontratako pertsonalak lanean ari den bitartean edo kontratuaren eremuan sartzen diren lokal eta guneeetan aurkitzen dituen gauza guztiak zentroko arduradunen bati eman beharko dizkio (jendearen arretarako mostradorean) eta horren berri eman beharko du erregistro-liburuan.
- Kontratako pertsonalak garbiketa-zerbitzuak betetzen ari den bitartean antzematen dituen matxura edo/eta hondatutako elementu guztien berri eman beharko dio instalazioko pertsonalari, baita erregistro-liburuan jaso ere.
- Kontratako pertsonalak instalazioaren erabiltzaileen irteera kontrolatu beharko du ezarritako ordutegian. Gainera, eguneroko garbiketa-zerbitzua amaitutakoan, instalazioko sarbideak itxi eta itxita daudela egiaztatu beharko du.
- Ebakuazio-bideetan dauden ateak eta korridoreak zabalik eta oztoporik gabe egongo dira, oztopotzat hartuta garbitzeko tresnak eta materialak.
- Bai plegu honetan bai esleipena lortzen duen proposamenean ez bada zehatz-mehatz argitzen zein diren garbitzeko elementuak edo guneak edo erabili beharreko sistemak, Zubikoa Kiroldegiko arduradunek unean-unean erabakitzen dutenari jarraituko zaio.
- Iragazketak, itoginak eta abarrekoak direla eta ur-jarioak edo isurpen likidoak badaude, kontratako Zubikoa Kiroldegiak erabakitako baliabide materialak jarri beharko ditu ura lehortu eta jarioak edo isurkiak eragozteko. Halaber, erabiltzaileei eragozpen horien berri eman beharko die uneoro, Zubikoa Kiroldegiak erabakitako seinaleen bidez.
- Kontratako pertsonalak ohiko eta aparteko zerbitzua betetzeko erabiltzen dituen tresnak eta kirol-instalazioetako pertsonalak erabiltzen dituzten esku-oihalak eta petoak garbitzea, eskegi eta eraistea eta biltzea.

### **5.1.2. Kontserbatzeko garbitze-plana**

Kirol-instalazioak ez dira ixten urte osoan. Horregatik, erabiltzaile gutxiago joaten diren sasoia aprobetxatuz, urtean behin gutxienez garbiketa orokorra egingo da. Garbiketa hori abuztuan egingo da, edo bi aldeen artean adostutako

beste data batean. Gune lehorra kontserbatzeko garbiketa-plan horretan bete beharreko gutxieneko eragiketak honako hauek dira:

- **Orokorra:**
  - Su-itxalgailuen eta sute-aho hornituen kutxak garbitzea.
  - Ateak, ate gaineko erlaitzak eta markoak garbitzea.
  - Armairuak barrutik eta gainetik garbitzea.
  - Arrapala eta korridoreetako errodapiak garbitzea.
  - Eskudelak garbitzea.
  - Leihoen barruko erlaitzak garbitzea.
  - Horma, goialde, sabai (baita lamadunak ere), luminaria eta zorutik irisgaitzak diren guneetan hautsa kentzea.
  - Toldoak, errezelak eta tapizak garbitu, xurgatu eta desinfektatzea, eta behar izanez gero muntatu eta desmuntatzea.
  - Biltegiak garbitzea.
  - Barruko gelak garbitzea.
  - Botikina: azulejuak, makinak, andak, altzariak eta abar garbitzea.
  - Bulegoak: armairuak, ordenagailuak, pertsianak eta abar garbitzea.
  - Gimnasioak: makinak eta kirol-materialak garbitzea, koltxonetak eta rokodromoko zorua barne hartuta.
  - Aldagelak eta komunak: hormak, zoruak, ateak... xaboiz garbitzea.
  - Hormak, ateak eta armairuak garbitzea, baita armairuen goialdeko hormak eta goiko armairuak ere.
  - Aldageletako saretak goitik eta behetik garbitzea.
  - Makina-gelak garbitzea: zoruak eta hodiak.
- **Gune urdina (instalazio berria):** instalazio guztia goitik behera garbitzea, irailaren 1erako garbi eta erabilgarri egon dadin.
- **Kirol anitzeko pistak:**
  - Korridoreak eta harmailetak aulkiak goitik eta behetik garbitzea.
  - Pistako biltegiak eta horietan dauden kirol-materialak garbitzea.
  - Saskibaloiko saskiak, horien azalak eta uztaiak.
  - Kantxako errezel lerragarriak.
  - Hormak eta paramentu bertikalak.
  - Zorua sakon garbitzea.
- **Kristalak:**
  - Kristal irisgaitzak.
- **Errezel bereizleak:**
  - Bi kantxetako errezel bereizleak.

- *Kantxa urdineko (berriko) perimetro fenolikoa:*

- Kantxa urdineko horma fenoliko perimetralak.

Gune hezea urtean behin ixten da behar diren mantentze-lanak egiteko. Egun horiek aprobetxatuko dira gune horren garbiketa orokorra egiteko, Zubikoa Kiroldegiako zuzendaritzak agintzen duen eran.

## 5.2. Hondakinen gaikako bilketa-plana:

Zubikoa Kiroldegiak gaikako bilketa ezarrita dauka hondakin solidoak, papera eta kartoia, plastikoa, hondakin organikoak eta errefusak eta beste batzuk jasotzeko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Garbiketa zerbitzuaren enpresa esleipendunak hondakin horien prozesuari jarraipena eman beharko dio, Zubikoa Kiroldegiaren jokaera eta hondakinak bereizi eta eramateko indarrean dagoen legeria betez.

Enpresa esleipendunak bere baliabideak erabiliko ditu papera eta kartoia, hondakin organikoak, plastikoa, beira, ontzi metalikoak, pilak, zurak eta beste batzuk biltzeko, legeriari jarraiki.

Birziklatu edo sailka bildu beharreko materialetarako –papera, plastikoak, metala, organikoak eta abar– berriazko edukiontzia daude kontratuaren xede den instalazioen barruko leku jakin batzuetan. Gauzak horrela, kontratistak edukiontzi horiek hornitu, mantendu eta gestionatu egingo ditu, kostu gehigarririk gabe. Edukiontziok garbi eta ondo kontserbatuta egon beharko dute beti.

Eraikinetan eta horien eranskinen kanpoaldean uzten diren hondakin eta zabor-poltsa guztiak horretarako berriaz ezarritako edukiontzietan jarri behar dira.

Paperaren gaikako bilketa-sistemak datu pertsonalen babesa bermatu behar du, bildu beharreko hondakinaren izaera kontuan hartuta (espedienteak, fitxak eta abar).

Hona hemen hondakinen kategoriak eta jatorriak, azalpen gisa eta izaera murriztailerik gabe:

- Erabiltzaileek jarduerak sorrarazitakoak.
- Paperezko eta kartoizko hondakinak: oro har, gela eta guneetatik datorren papera birziklatu behar da.
- Zaborra oro har: zaborra, janari-hondarrak.
- Eguneroko garbiketa-prozesuek sorrarazitako hondakinak.
- Beira: beira eta kristala.
- Plastikoa eta kristalezkoak ez diren ontziak.
- Administrazio-bulegoek eta jendearentzako arreta-zerbitzuek sorrarazitakoak.
- Aurrekoak eta gainera:
  - Pilak eta bateriak.
  - Eraikinetako zerbitzuetako berezko zereginetan sortutakoak.
  - Manta iragazleak.
  - PVCa.
  - Arropak, toallak, oinetakoak.
  - llea.

### 5.3. Sarbideak kontrolatzea eta ateak ixtea gainbegiratzea

Enpresa lizitatzailerak instalazioetako sarbideak kontrolatzeko eta ateak ixtea gainbegiratzeko arduradun bat izendatuko du. Berak garbiketa-zerbitzua egiten den bitartean eta zerbitzua amaitutakoan beteko du bere zeregina, instalazioa jendearentzat itxita dagoenean. Arduradun horren zeregina izango da instalaziotik eta garbiketa-zerbitzurik kanpoko inor ez sartzea instalazioan, zerbitzua betetzen ari den bitartean. Zerbitzua amaitutakoan, instalazioan sartzeko ate guztiak itxi eta ondo itxita daudela gainbegiratu beharko du. Erabat debekatuta dago zerbitzutik kanpoko pertsonak instalazioan sartzea zerbitzua betetzen ari den bitartean.

### 5.4. Hainbat

Enpresa esleipendunak honako garbiketa-zeregin hauek aldizka betetzeko asmoa jaso beharko du mantentzeko garbiketa-planean:

- Mopak, toallak eta petoak garbitu eta lehortzea.
- Arropa bildu eta kentzeko zerbitzua antolatzea.
- Zuhaitz-hostoak bildu eta kentzea.
- Lorategiak garbitzea.
- Kartelak kentzea.
- Pintadak eta grafitiak kentzea.

Lan horiek Zubikoa Kiroldegiak zehaztutako jarraibideen eta maiztasunaren arabera beteko dira.

## 6. ZERBITZU OSAGARRIAK ETA APARTEKOAK

Zubikoa Kiroldegiak, zerbitzu osagarriak eta apartekoak eskatu aurretik, unean uneko beharrei erantzuteko behar diren zerbitzu-aldaketak eskatu ahal izango dizkio enpresa esleipendunari. Zerbitzu-aldaketa horiek ez dira zerbitzu osagarritzat hartuko fakturazioa egitean, eta ezin izango dute langilearentzat aurreikusitako zerbitzu-denbora gainditu. Zubikoa Kiroldegiko zerbitzu-koordinatzailea arduratuko da instalazioko pertsonalak eskatutako zerbitzua antolatu eta jakinarazteaz.

### a. ZERBITZU OSAGARRIAK:

Zerbitzu osagarriak honako hauek dira: ohiko edo mantentzeko garbiketa-zerbitzuetan aurreikusita ez egoteagatik osagarritzat hartzen eta fakturatzen direnak. Zerbitzu horien orduko prezioa honela kalkulatu da: ohiko zerbitzuaren esleipen-prezioa zati ohiko zerbitzua betetzeko urtean kalkulatuak ordu kopurua.

Atal horretan sartuko dira ekitaldietan arreta emateko eskatzen diren garbiketa-zerbitzuak eta Kiroldegi Zubikoak unean-unean beharrezkotzat hartzen dituen beste batzuk. Zerbitzu horiek eman aurretik idatziz eta berariaz eskatu beharko ditu Zubikoa Kiroldegiak, beharren arabera.



**b. APARTEKO ZERBITZUAK:**

Aparteko zerbitzuak honako hauek dira: ezusteko arrazoiak direla eta –suteak, uholdeak, ekaitzak eta abar– ematen direnak. Zerbitzu horiek ohiko ordutegian bete ahal izango dira edo, behar izanez gero, aparteko orduak betez. Unean uneko aparteko garbiketa-zerbitzua emateko bi egun baino gehiago behar badira, une horretatik aurrera zerbitzu osagarritzat hartuko da.

Zerbitzu horiek eskaintzaren orduko prezioaren arabera emango dira eta zerbitzuak eman aurretik idatziz eta berariaz eskatu behar ditu Zubikoa Kiroldegiak, beharren arabera.

**7. ZERBITZUA EMATEKO PERTSONALA**

Enpresa esleipenduneko pertsonalak dagokion uniformeak jantzi beharko du, eta bere janzerak itxurazkoa izan behar du beti. Enpresa esleipenduneko pertsonalak, jendearen aurreko jarduerak betetzen dituenean, jarduera bakoitzari dagozkion arropa egokiak jantzi beharko ditu. Jantzian guztiz ikusgarri egongo dira pertsonala betetzen ari den zerbitzuaren izena (“garbiketa-zerbitzua”) eta enpresa esleipendunaren logotipoa.

Zerbitzuak ematen dituen pertsonala guztiz identifikagarria izango da eta langile guztiek uniforme eta arropa berdina jantzi beharko dute.

Kontratatistak konpromisoa hartzen du zerbitzuan aplikagarri den Lurraldeko Hitzarmen Kolektiboan ezarritako soldatak eta gainerako lan-baldintzak zorrotz betetzeko. Esleipendunak langileen zerrenda eta, hala dagokionean, altak, bajak eta ordezkapenak egiteko parteak eman beharko dizkio Zubikoa Kiroldegiko zuzendaritzari. Zerrenda horrek Zubikoa Kiroldegiko zuzendaritzaren oniritzia jaso beharko du. Bajak eta ordezkapenak estaltzeko jakinarazpenari dagokionez, zerbitzuko langileren bat lanean ez badago, zerbitzuaren arduradunari horren berri emango zaio egunero. Horretarako, baja hartu duen edo lanera agertu ez den langilearen izen-abizenak eta horren ordezkariaren izen-abizenak adieraziko dira.

Kontratuko pertsonalak lanean ari den bitartean edo kontratuaren eremuan sartzen diren lokal eta guneetan aurkitzen dituen gauza guztiak zentroko arduradun bati eman beharko dizkio (jendearen arretarako bulegoan) eta horren berri eman beharko du erregistro-liburuan. Aurkitutako gauza horiek instalazioko harrera-gunean adierazitako biltegian utzi beharko ditu. Bestalde, zerbitzua ematean kaltetu diren edo apurtuta dauden material, instalazio eta elementuen berri eman beharko du. Horretarako, Zubikoa Kiroldegiko harrera-gunean jakinarazi eta bertan dagoen erregistro-liburuan idatziko du.

Esleipendunak langileen zerrenda aurkeztuko du kontratua sinatu ondorengo 15 eguneko epean eta lanak hasteko aktaren aurretik, bakoitzaren izen-abizenak, NAN-AIZ zenbakia, kategoria, antzintasuna eta kontratu mota adierazita, baita bakoitzari dagozkion betebeharrak, garbiketa-ibilbideak eta garbitzeko prozedurak ere.

Gipuzkoako eraikin eta lokaletako garbiketa-sektorearen indarreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoa betez, plegu honetako IV. ERANSKINEAN gaur egun garbiketa-zerbitzua –dela oraingo kontrataren bidez dela Udaleko pertsonalaren bitartez– betetzen ari den pertsonalaren zerrenda ageri da.

Enpresa lizitatzailleak lan-programa bat zehaztuko du bere eskaintzan, eta horretan zehatz-mehatz adieraziko du zenbat langile beharko dituen –langile subrogatuak eta Zubikoa Kiroldetegiak kontuan hartuta–, baita horien jardunaldiak eta ordutegiak ere. Era berean, erabiliko dituen makinak eta bete beharreko lanen plangintza zehatza azalduko du, garbiketa-sistemak eta erabili beharreko ekipoa aipatuz

## 8. ZERBITZUA EMATEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Zubikoa Kiroldetegiak eskubidea izango du garbiketarako ordutegi eta egutegiak egokitu edo aldatzeko, instalazio bakoitzaren behararen arabera. Aldaketa horiek ez dira zerbitzu osagarritzat edo aparteko zerbitzutzat hartuko, halako izaera duten unean uneko garbiketa-eskaerak ez badira.

Orduen banaketa egiteko kontuan hartu behar da garbiketa-zerbitzua honela bete beharko dela:

- 6. puntuan adierazitako jarduera guztiak, ahal den heinean, instalazioa jendearentzat itxita dagoenean bete behar dira.
- Instalazioak irekitzeko edo erabiltzeko orduetan, plegu honetako 6. ataleko (“OHIKO ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA”) lanak beteko dira eta, gainera, etengabeko garbiketa-zerbitzua egongo da.

Esleipendunak langileen eta zehaztutako lan-ordutegiaren zerrenda eman beharko dio Zubikoa Kiroldetegiari arduradunari. Horretan zehatz-mehatz adieraziko dira langile guztien eguneroko ordutegia eta zerbitzua eta horien balizko ordezkoak.

Pertsonalaren lana eta txandak antolatzeko helburuz, hona hemen jendearentzat ireki eta itxeko 2014ko ordutegiak:

- Urtarrilaren 1etik ekainaren 14ra eta irailaren 1etik abenduaren 31ra.
  - Astelehenetik ostiralera: 07:30etik 21:30era.
  - Larunbatak: 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era.
  - Igandeak eta jai-egunak: 09:00etatik 13:30era.
- Ekainaren 15etik uztailaren 31ra.
  - Astelehenetik ostiralera: 07:30etik 21:30era.
  - Larunbatak, igandeak eta jai-egunak: 10:00etatik 20:00etara.
- Abuztuaren 1etik abuztuaren 31ra.
  - Asteartetik igandera: 10:00etatik 20:00etara.
  - Astelehenak: itxita.

Plegu honen xede diren guneez eta lehorrak –dagoeneko aipatu dira– urteko egun guztietan garbituko dira, zentroa jendearentzat ixten denean izan ezik. Orientazio gisara, honako egun hauek izango dira horiek:

- Urtarrilaren 1a.
- Ostegun Santua, Ostiral Santua eta Pazko Astelehena.
- Corpus Eguna.
- Irailaren 29a eta 30a (San Migel eta San Migel Bixamona).
- Urriaren 5a, 6a eta 7a (Herri Eguna, Errosario Igandea eta Errosario Bixamona).
- Urriaren 8a, goizez (Errosario Bixamonaren Bixamona).
- Abenduaren 24a, arratsaldean (Gabon Gaua).
- Abenduaren 25a (Eguberri Eguna).
- Abenduaren 31, arratsaldean (Gabon Zaharra).
- Uztailako asteburuetan eta abuztuan, kiroldegiko guneez berria itxita egongo da.

Hona hemen zerbitzua betetzeko egin beharreko lanorduak:

- Eguneroko mantentzeko garbiketa-zerbitzua: kiroldegia eskatzen duen kalitatea betetzeko gutxienez lanegun zuzeneko 141,5 lanordu behar dira astean eta 7.315 lanordu urtean, astelehenetik igandera, arduradunak, gainbegiraleak, kontrol-pertsonala eta noizbehinkako lanak kontuan hartu gabe.
- Kontserbatzeko garbiketa-zerbitzua: lan esku zuzeneko 200 lanordu behar dira urtean, arduradunak, gainbegiraleak eta kontrol pertsonala kontuan hartu gabe.

Urteko zerbitzuko lanordu-aurreikuspen horri zerbitzuko 245 lanordu kendu behar zaizkio gutxi gorabehera, udako egutegian eta ordutegian instalazio batzuk ixteagatik.

Interesatuak egiten dituzten eskaintzeki lanegun zuzeneko kopuru txikiagoa aurreikusten badute, eskaintza horiek ez dira onartuko, emaitzen egokitasuna bermatzen ez dutelakoan. Lanegun kopuru horren barruan Zubikoa Kiroldegiko enplegatu batek egingo dituenak sartuta daude. Enplegatu hori ez da subrogatuko, Zubikoa Kiroldegia mendean zuzenean jarduten baitu.

Garbiketa-ordutegia Zubikoa Kiroldegia arduradunekin koordinatuta finkatuko da. Ordutegi horrek instalazioak ireki eta ixteko orduak errespetatuko ditu beti, baita instalazioetan jardura guztiak gauzatea eta pertsonen joan-etorria ere. Aintzat hartzen diren zerbitzuen artean, eguneko garbiketa hartu

behar da kontuan, alegia zentroa eguerdiko eta arratsaldeko ordutegian irekita dagoenean egin beharrekoa, instalazioen erreparazioa egiteko.

Aurretik esandakoa betetzeko, II. ERANSKINEAN (“Ohiko Garbiketa Maiztasuna”) finkatutako muga-ordutegiak hartuko dira kontuan.

Ordutegi horien barruan lehentasuna emango zaio guneez hezeak garbitzeari, hala nola aldagelak eta bainugelak, instalazioetako ateak jendearentzat irekitzen direnean guneez horiek erabiltzeko egoera egokian egon daitezten.

## 9. BALIABIDE MATERIALAK

Zerbitzuak emateko behar diren ura eta argindarra Zubikoa Kiroldegiak emango ditu.

Enpresa kontratistaren kontura joango dira garbitzeko makina eta horren ordeko piezak, jantziak, tresnak, argizari-makinak, industria-lurruneko makinak, xurgagailuak eta horien osagarriak, aldarmioak, eskailerak, segurtasun-elementu bereziak eta, oro har, zerbitzua zuzen emateko behar diren beste material edo elementu guztiak, espresuki aipatu ez badira ere. Bitarteko horiek zerbitzua azkar ematea bermatu eta Segurtasunari eta Arriskuaren Prebentzioari buruzko araudia bete behar dute.

Eraikin bakoitzean diharduen kontratuko pertsonalak produktuak garraiatzeko orgak, ekipo lagungarriak eta bere lana ahalik eta azkarren betetzeko behar dituen tresnak izan beharko ditu.

Zerbitzuari buruzko informazioa etengabe izateko aukera emango duten komunikazio-bide informatikoak, telefonikoak eta postalak erantsi behar zaizkio kontratuari. Kontratuaren arduradunak eta instalazioko zerbitzuarenak komunikatuta egoteko aukera izan behar dute beti.

Kontratuaren helburu diren lanak zuzen betetzeko eta eraikinak guztiz garbi egoteko behar diren produktuen hornidura kontratistaren kontura joango da, behar besteko kantitatean, eta ez du inolaz ere kontratuaren prezioa garestituko.

Enpresa kontratistak prestakuntza eman beharko die langileei zerbitzurako erabiltzen diren produktuen dosifikazio egokiari buruz, fabrikatzaileen arauak jarraiki eta ingurumen-ziurtapenen arabera, baita produktu horiek erabiltzean hartu beharreko prebentzio-neurri osagarriari buruz eta produktu horien manipulazio edo erabilera okerrak ekar litzakeen arriskuei buruz ere.

Enpresa kontratistak garbiketa profesionaleko makinak erabiliko ditu plegu honetan azaldutako eragiketak betetzeko. Makina horiek europar arauak bete beharko dituzte segurtasun orokorraren, bateragarritasun elektromagnetikoaren, bibrazioen, zarataren eta soinu-emisioen alorretan.

Garbiketa-produktuek eta komuneko material kontsumigarriek ingurumen- inpaktu txikia eta kalitate aitortua izan beharko dute. Zubikoa Kiroldegiak atzera bota ahaliko ditu, pertsonen edo eraikinetako ondasunen segurtasunerako berme egokia eskaintzen ez badute.

### *a.- Debekatutako substantziak garbiketa-produktuetan*

Kontratuak barne hartzen dituen eraikinetako gelak eta guneez garbitzeko erabiltzen diren produktuek ezin dituzte substantzia hauek eduki:

- 67/548/EEE Zuzentarauaren arabera, kantzerigenotzat, mutagenotzat edo teratogenotzat sailkatutako osagaiak.
- Produktuek ez dute R42 (arnasketa bidezko sentsibilizazioa) edo R43 (azalarekin kontaktu bidezko sentsibilizazioa) etiketarik izango.

Garbiketa egiteko honako detergente hau erabiliko da beti: fungizida-bakterizida ekologikoa, neutroa, eragin atzeratua duena eta garbitzaileak, instalazioak eta erabiltzaileak kaltetzen ez dituenak. Lixiba ez da inoiz erabiliko. Arreta berezia jarri beharko da horma, zoru eta sabaietan algarik, onddorik, eta hezetasun-orbanik ez agertzeko.

Erabiltzen diren garbiketa-produktuek eta xaboiak (erretxina kentzekoak, karea garbitzekoak eta abar) osasun-alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko dute eta ezin dute inolaz ere kalterik eragin zentroko ondasun materialetan edo erabiltzaileenetan.

Garbitzeko erabili beharreko produktuek, lehen aldiz erabili baino lehenago, Zubikoa Kiroldegiak izendatutako pertsonaren oniritzia jaso behar dute. Era berean, produktuak erabili aurretik, enpresa esleipendunak zerbitzua emateko erabili beharreko produktu guztien osasun-ziurtagiriak, fitxa teknikoak eta segurtasun-fitxa aurkeztu beharko dizkio Zubikoa Kiroldegiko mantentze-arduradunari. Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da eta bere gain hartu beharko ditu dagozkion kalteak ezagutarazi ez den edozein produkturen erabilera okerragatik edo tratatutako azaleretan izan litezkeen ondorioengatik.

Produktuaren fabrikatzaileak eman beharko ditu osasun-ziurtagiriak eta, halakorik ez badago, analisi bat eskatuko zaio homologatutako laborategi bati. Kasu horretan, enpresa esleipendunaren kontura joango dira gastuak. Produktuak igerilekuetan erabiliko badira, Osasun Ministerioaren erregistroan alta emanda egon beharko dute.

Produktuak aukeratzean aintzat hartuko da eskainitakoek ingurumena errespetatzea eta toxikotasun txikia izatea. Horretarako, produktuak edo horien osagaiak ezin dira ondorengo arrisku-esaldi hauen barruan sailkatuta egon, 67/548/EEE eta 1999/45/EEE europar zuzentarauen eta horien aldaketen arabera (255/2003 Errege Dekretuaren bidez Estatuko zuzenbidera ekarriak): R40, R43, R45, R49, R68, R50-53, R51-53, R59, R60, R61, R62, R63 eta R64.

Horrez gain, aintzat hartuko da produktuek ekoetiketaren batekin zehaztutako irizpideak betetzea, hala nola I. Motakoa (Europako etiketa ekologikoa, Beltxarga Nordikoa edo antzekoak), produktuaren formulazioan osagai kimikoak izateari dagokionez. Lizitatzzaileak etiketa horietako batekin zehaztutako eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du. Informazio gisa, Europako etiketa ekologikoa edo Beltxarga Nordikoa irizpide hori egiaztatzeko balio du.

Lizitatzzaileak onartutakoa ez den beste produkturen bat erabiltzeko asmoa badu, Zubikoa Kiroldegiko Mantentze Arloarekin kontsultatu beharko du; izan ere, enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da eta bere gain hartu

beharko ditu dagozkion kalteak ezagutarazi ez den edozein produkturen erabilera okerragatik edo tratatutako azalaretan izan litezkeen ondorioengatik.

b.- Komuneko material kontsumigarria. xaboiak, zelulosa-papera eta zabor-poltsak

Kontratuaren prezioan komuneko material kontsumigarria barne hartuta dago, eta kontratista arduratuko da xaboiak, zelulosa-paper higienikoa eta paperezko toallak eta zabor-poltsak birjartzeaz. Material horiek egokiak izan behar dute gela eta guneetako komunetan eta zaborra biltzeko lekuetan dauden euskarrietarako.

Enpresa kontratistako pertsonalak egunero optimizatuko du komunetan birjarri beharreko materialen kontsumoa (eskuetarako xaboiak, paper higienikoa eta lehertzeko papera), behar dena besterik ez hornitzeko, eta material kontsumigarri horren falta edo hornidurarik ezaren erantzule izango da.

Esleipendunak baliabide materialen stock bat izateko konpromisoa hartuko du, emandako zerbitzua bermatzeko.

## 10. JARRAIPENA ETA KALITATE KONTROLA

### a. Jarraipeneko eta Kalitate Kontroleko Plana

Enpresa esleipendunak Zubikoa Kiroldegiko garbiketa-zerbitzuaren Jarraipeneko eta Kalitate Kontroleko Plana aurkeztu beharko du 30 egun naturaleko epean, lanen hasierako aktaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Planak gutxienez honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Langile kopurua, eguneroko garbiketa-orduak eta garbiketa-plana adierazi eta justifikatzea. Proposatutako errendimenduak (m2/ordua) justifikatzea.
- Zerbitzua emateko erabiliko diren baliabide materialak (ibilgailuak, makinak eta lan-tresnak) deskribatzea, horietako bakoitzaren ezaugarriak eta non eta zertarako erabiliko diren zehaztuz.
- Zerbitzuaren kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak, baita garbiketaren ebaluazio-orriaren eredua ere.
- Zerbitzua emateko erabiliko dituen gestio-bitartekoak, alegia barne-antolakuntzako prozesuak, zerbitzuari lotutako pertsonalarekin komunikatzeko sistemak eta gestio-softwarea eta -tresnak.
- Zerbitzuak barnean hartzen dituen zereginen deskribapena, zeregin horiek betetzeko behar diren giza baliabideak eta materialak zehaztuz.
- Zerbitzua betetze-mailei eta -adierazleei buruzko hileko jarraipen-txostena.

Jarraipeneko eta Kalitate Kontroleko Plana komenigarri denean berrikusi eta unean uneko beharretara egokituko da, baliabideak optimizatuz, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta kostuak murrizteko.

### b. Zerbitzuaren betetze-adierazleen kontrola

Zerbitzuaren kalitatea neurtzeko zerbitzuaren betetze-adierazleak erabiliko dira, emaitzak, kalitatea, erantzuteko denbora eta abar oinarri hartuta. Oro har, adierazleok honako hauek neurtuko dituzte:

- Zerbitzuen kontrola, instalazioen tipologiaren eta espazio komunaren arabera: betetzea eta eraginkortasuna.
- Mantentzeko, kontserbatzeko eta txukuntzeko garbiketaplana betetzea.
- Hondakinak biltzeko plana betetzea.
- Zerbitzuak eta ordutegiak betetzea.
- Makinen eskuragarritasuna eta egoera.
- Kontsumigarrien kalitatea eta birjarpena.
- Pertsonalaren garbitasuna eta diziplina.

Esleipendunak kalitate-kontroleko sistema bat aurkeztu beharko du. Sistema hori euskarri informatiko batean egongo da oinarrituta, adierazleei buruzko datuak ateratzeko eta betetze-mailak kalkulatzeko. Zubikoa Kiroldegiak sarbidea izango du sistema horretan, eta horren datuak Excel tauletara eraman ahalko dira.

Hileko jarraipen-txostena aurkeztuko da. Bertan zerbitzuaren betetze-maila kalkulatu da, hileko adierazleen datuak kalitate-mailekin alderatuta. Hona hemen kalitate-mailak:

- Helburuko balio-tartea. Bi balio: gutxieneroa (% 98) eta gehienekoa (% 100).
- Gutxienero balio onargarria, helburuko balio-tartea baino txikiagoa (% 95).

Txostenean neurtu beharreko kontzeptu bakoitzaren banakapena egingo da:

- Adierazlea.
- Baloratzeko modua.
- Betetze-mailak.
- Kontzeptu guztien gaineko garrantziaren ponderazioa.
- Lortutako balioa.
- Desbiderapena.
- Zehapenaren zenbatekoa.

Aurreikusitako zehapenak hileroko kuota finkoetatik kenduko dira, kalkulatzeko irizpide hauen arabera:

- Helburuko balio-tartearen barruan ez da zehapenik egingo.
- Helburuko balio-tartetik behera eta gutxienero balio onargarritik gora: zehapenaren balioa proportzionala izango da honako erlazio honekin: lortutako balioaren eta gutxienero balio onargarritik helburuko gutxienero baliora bitarteko aldearen arteko erlazioarekin, hain zuzen. Gutxienero balio onargarriak hurrengo puntuan azalduko den zehapenik handiena eragingo du.
- Gutxienero balio onargarria baino txikiagoa: zehapenik handiena aplikatuko da eta kontzeptua ez da ordainduko. Honela baloratuko da orduko prezioa: eskaintzan aurreikusitako orduko prezioa bider zerbitzu zehatza betetzeko behar den ordu kopurua.

Txostena egiteko, enpresa kontratistako arduradunak eta Zubikoa Kiroldegiak izendatutako arduradunek ikuskapen-bisita egingo dute hileroko, zerbitzu-ordutegiaren barruan eta ordu jakin batean, ausaz erabakitako instalazioko

leku, gune eta lokalak ebaluatzeko. Horiek egiten duten txostena Kiroldegiko zuzendaritzari aurkeztuko zaio; horrek aztertu eta konpondu edo hobetu beharreko alderdiak enpresari jakinaraziko dizkio, behin betiko txostena egin eta zehapen ekonomikoak ezarri aurretik.

Bisita horren ostean egiten den txostenean zerbitzuaren kalitate teknikoa jasoko da, Preskripzio Teknikoen plegu honetan ezarritakoaren arabera. Zehazki, honako hauek agertuko dira txostenean:

- Ikusitako arazoak, horien larritasuna eta, hala badagokio, erruduna edo arduraduna.
- Zentroak eskatutako neurri zuzentzaileak, dagokien gauzatze-epearekin.

### c. Kontratuaren jarraipena

Kontratuaren jarraipena egiteko hiruhileroko sistema ezarriko da. Horretarako bilerak egingo dituzte esleipendunak eta Zubikoa Kiroldegiak, honako gai hauek aztertzeko, besteak beste:

- kontratuaren betetze orokorra
- adierazleen jarraipena eta berrikuspena
- zerbitzu-mailak
- zehapenen analisia
- lan-programen egokitzapena
- kontratuari atxikitako baliabideak eta bitartekoak
- plantillen egoera
- produktuen balantzea eta bakoitzetik erabilitako kantitateak

Bileraren ondoren, esleipendunak akta egingo du konklusioak eta erabakiak jasotzeko, eta bi aldeek sinatuko dute.

## 11. ARAU HAUSTEAK

Esleipendunak kontratua betetzean egin litzakeen arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak, ondorengo tipifikazioaren arabera.

### a.- Arinak

- Arauzko jantzia eta identifikazioa ez eramatea edo egoera txarrean izatea.
- Garbitasunik eta begirunerik eza.
- Plegu teknikoak eta administratiboak ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

### b.- Larriak

- 2 hilabetetan 3 arau-hauste arin edo gehiago egitea.
